



**DBH**  
**3-4**

*Augustin  
Zubikarai  
XIV. ipuin rallya*

2025-26 ikasturtea  
ONDARROA

Idaztea ariketa ausarta da, eta are ausartagoa norberaren barrukoa partekatzea, noiz eta ordu bi bakarrik izanda halako ariketa bat egiteko. Batzuk pozik geratuko ziren egindako ariketarekin beste batzuk, ostera, ez hainbeste; baina gauza bat bistan da: gure gazteek erronkari egin diote aurre irudimenez eta gogotsu.

Bilduma hau ez da ohiko liburu bat. Orrialde hauek leiho bat zabalik uztea bezala da, gazteen ahotsarena: begiratzeko modu bat, mundua ulertzeko saiakera zintzo bat. Istorio bakoitzak badu bere tonua, bere erritmoa, eta, bakoitzean, aldi berean, galderak, kezak eta ilusioak planteatzen ari zaizkigu. Gazteen pultsua gertutik sentitzeko aukera bat da hau. Zer pentsatzen dute? Zerk harritzen ditu? Zerk mugitzen ditu barrutik? Hemen aurkituko dituzu erantzun batzuk... eta, ziurrenik, galdera berriak ere bai. Horixe baita literaturaren indarra: irakurlea mugiaraztea, beste begirada batzuk ezagutzeko aukera eskaintzea, eta gure ingurukoak hobeto ulertzen laguntzea.

Hartu tarte bat, irakurri lasai; seguru gaude, istorio hauetan, espero zenuena baino gehiago aurkituko duzula.



## AURKIBIDEA

4 **BIZITZA BERRIA, AMETSAK BETEZ**  
AINHIZE OTXOANTEZANA GARCÍA

7 **BURGO ETXEA**  
IZADI TXAKARTEGI BEITIA • OIER AROSTEGI EGURROLA

12 **ETORKIZUNEKO TRAMANKULUA**  
ILAZKI ANDONEGI RODRIGUEZ

16 **LAGUNAK ETA SEKRETUAK**  
JUNE ATXURRA BADIOLA • JUNE URRESTI IGLESIAS

21 **SORGIN AHIZPAK**  
ARANE GONZALEZ ATXURRA

Augustin  
Zubikarai  
XIV. ipuin rallya  
2025-2026 ikasturtea



**ondarru**  
*bixi-bixi*

Epaimahaikideak:  
**Leire Bilbao Barruetaña**  
**Ana Urkiza Ibaibarriaga**

Antolatzailea:  
**ONDARROAKO UDALA**

Babeslea:  
**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**



**Bizkaia**  
*foru aldundia*

# Bizitza berria, ametsak betez

**A**zken kamisetak tolestu, hortzetako eskuila hartu eta maleta itxi dut. Nire bizitza osoa kutxa batean gordeko banu bezala. Aitari, 10 urteren ostean, zaintza partekatua kendu diote. Amak uste du ez dakidala, baina orain dela asko jabetu nintzen aitzak kontsumitu egiten zuela. Zorionez, lara, arreba txikiak, ez du susmorik ere. Nire aita da, berarekin hazi gara, maite dut, nahiz eta gai ez izan gu hezteko.

Atzo egun iluna izan zen, aita agurtu genuen, etxea biluzik uzten genuen bitartean. Ez zigun agur bakar bat ere esan, lotsak estaltzen zizkion sentimentu guztiak. Tentsioa erabatekoa zen, eta horrexegatik, hain zuzen ere, nahiago izan nuen isilik geratu.

Hurrengo goiza nire bizitzako isilena izan zen, bidaia luze baten ostean iritsi ginen. Ezagutzen ez nuen herri batean bat-batean bezala agertu nintzen. Ikastolara joan behar nuen, baina ez nuen nire burua prestatuta ikusten. Afaltzean, amarekin eztabaidatu nuen berriz.

– Uzuri! Berriz ere marrazten! Erreparasatu matematika, marrazkiak eginez ez zara inora iritsiko! – esan zidan haserre eta atsekabetuta.

– Zuk ez didazu esango zer egin! Nik nahi dudana ikasiko dut! – beti berdina esaten diot. Altxatu eta afaldu gabe lotara joan nintzen.

Ikastolako lehen eguneko goizean inoiz baino beldurtuago ikusi





nuen neure burua. Zaila da 15 urterekin etxea atzean utzi eta herri, lagun eta ikastola berri batera mugitzea. Oraindik gehiago, ez zarenean 'guay'-a. Nerabeek kirolak egiten dituzte, eta gelako mutilekin ligatzen dute, a ze aspergarria! Nik nahiago nuen nire marrazkietan murgildu ingurura gehiegi begiratu gabe.



Horrela segitu nuen lehen hiruhilabete osoa. Notak iristean, amak errieta egin zidan nota justuak ateratzeagatik. Gaztelaniako irakaslea arraroa zen hasieran, baina denbora pasa ahala hobeto eraman ginen. Astebetera, deitu egin ninduen irakasle gelara joateko. Uste nuen zigoreen bat jarriko zidala, baina zorionak eman zizkidan. Zur eta lur geratu omen zen nire kuadernoko marrazkiekin.

- Berria egunkarian lan egiten duen lagun bat daukat, berarengana eramango zaitut. – adierazi zidan poz-pozik, Joxe irakasleak.
- Ni? Bai zera! Ez dira oso marrazki onak! – ezin nuen sinetsi.
- Bihar klaseak amaitutakoan eramango zaitut.

Nire bizitzako egunik pozgarriena izan zen. Nire ametsa izan zen betidanik nire marrazkiak haratago iristea.

Bihotz taupadak bizkortzen sentitu nituen, baina zerutik jaitsi eta ohartu nintzen mateko klasean nengoela. Azkar amaitu eta Joxe nire zain zegoen kotxean. Berria egunkariko bulegoetara joan ginen, eta probak egin zizkidaten.

Astebete pasatu zen, mezu bat iritsi zitzaidan adieraziz nirekin nahi zutela lan egin. Amak ez zekien ezer probei buruz, eta mezua iritsi bezain pronto, erakutsi egin nion. Poz-pozik esan zidan DBH4 amaitutakoan batxiller artistikora joan ahalko nintzela, beti nahi izan nuen moduan.

Orain ohartu naiz norbere ametsa asko gustatuz gero, ez dela inoiz etsi behar besteek esaten edo nahi dutenagatik.

# Burgo Etxea

**T**entsioa erabatekoa zen, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, nahiago izan zuen isilik geratu. Horixe izan zen nire ikuspuntua aldatu zen unea. Baina momentu honetara iritsi aurretik nire istorioa kontatu nahi dizuet.

Aiur naiz, hemeretzi urteko kalekume ohia. Nire bizitza pertsona «heldu» baten moduan, poliziak nire etxeko atea ireki zuenean aldatu zen; nahiz eta bederatzi-hamar urte izan, hor sentitu nuen benetan umezurtz ahaztu bat izatea zer zen. Ia hamarkada batez bizi izan nintzen Tolosako etxe okupatu baten amarekin. Ama alkohol eta drogen munduan sartuta zegoen jada ni jaio baino lehenago, berak bertatik gertu zegoen ibai batean egiten zuen lan, arropak garbitzen.

Egun batean, amaren zain nengoen etxeko mahaian eserita. Orduak igaro ziren, bata bestearen atzetik, baina inor ez zen sartu atetik goizeko ordu bata eta erdiak heldu ziren arte. Norbait sartu zen ate joka eta garrasika. «Nor dabil hor?!» Polizia zen, zehazki bi gizon, eta behartuta etxetik atera ninduten. Ni ikaratuta nengoen eta garrasika hasi




nintzen: «Ama! non dago ama?», eta bat-batean poliziaren erantzun baten zain, erantzun zidaten. «Zure ama hilik dago. Errekara erori da mozkortuta zegoela». Ni harrিতuta gelditu nintzen, hortik aurrera bi sentimendu sentitu nituen bakarrik, haserrea eta ikara. Inoiz ezin izango dut ahaztu egun hura, 1896ko azaroaren 19a, ezta ere, jipoitu ostean umezurtzen etxera eraman ninduen polizia.

Une hartan erabaki nuen ezin nintzela inoiz egon polizia edo antzeko eredu baten alde. Ez nuen asko iraun umezurtzen etxe hartan; laster egin nuen ihes bertatik eta kalean gelditu nintzen. Beste umezurtz batzuekin batu eta kalean bizitzen ikasi genuen denon artean. Bertan aurkitu nuen nire benetako ogibidea: lapurra. Kalean bizitzeko hasieran lapurreta txikiekin hasi ginen, fruitu postutik sagarrak, madariak, marrubiak... baina lapurretak areagotzen joan ziren... jendeztatutako merkatuetan diruzorroak, erlojuak eta gehiago, horrela bizi izan ginen, gutxienez, hiru urtez, hau da, ia hamahiru urte bete arte.

Egun batean, beste lapurreta batean, herriko merkatuan, gizon bat aukeratu genuen, diruduna zirudien, korbata, esmokina ... gure biktima perfektua zen. Garai haietan ni nintzen lapurrik onena eta ni arduratu nintzen gizonaren diruzorroa lapurtzeaz. Han abiatu nintzen: nire teknika ia perfektua zen eta ez nuen inoiz porrot egin, ordura arte... Eskua gizonaren poltsikoan sartzerakoan eskua heldu





zidan, eta begirada zuhur batekin, esan zidan ez ninduela salatuko, ordea, lapurren etxe batera gonbidatuko ninduela. Eta nik baietz esan nion, ez nuelako ez etxerik, ezta ezer galtzekorik ere. Bere izena Rikardo Burgoa zen.

Arratsalde hartan sartu ginen Burgo etxera, baserri izugarria zen, gutxienez, hirusolairukoa. Burgo jaunak nire logelara lagundu zidan eta ordu beteren ondoren



jangelara jaisteko esan zidan. Ordu horretan pentsatzen gelditu nintzen, zer izango da orain? la lau urtez kalean egon banaiz eta bat-batean etxe erraldoi batean.

Jangelara jaitsi nintzenean beste bederatzi lagun zeuden eserita, Gorbea jaunaren ondoan eseri nintzen ni, eta banaka-banaka eserita zeudenen aurpegia ikusten hasi nintzen eta, bat-batean, Gorbea jaunak isiltasuna apurtu zuen besteei nor nintzen aurkezteko.

Ondorengo goizean, Arrate anderea, Gorbearen emaztea, ikasgaiak irakasten hasi zen eta nahiz eta klaseak oso motel joan nik ez nuen ezer ulertzen, agian inoiz ez dudalako inolako irakaskuntzarik jaso.

Horrelaxe joan ziren beste hiruzpalau urte, goizean irakaskuntzak, ondoren bazkaldu eta arratsaldeetan, Gorbea jaunarekin lapurreta teknikak hobetzen nituen. Eta gaueko zortzietan afaria izaten genuen guztiok.

Mahaian eserita zeuden beste pertsonak ere bakoitzak beste ogibide bat zeukan, Unaiek arte-martzialak egiten zituen, Mattinek izugarritzko gaitasuna zeukan matematikentzat, Ugaitzek edozein horma eskalatzeko gaitasuna, eta horrela, bakoitzak berea zeukan.

Burgo etxean, nire lagunik handiena Ugaitz zen, gau batean biok hitz eta pitz geundela ohartu ginen Burgo jaunak ez zuela inolako arra-



zoirik bertan geunden gazteok etxean jasotzeko eta biok ohartzen ha-  
siak ginen jada.

Burgo jaunak hainbat egun igarotzen zuen baserritik kanpo eta  
une haietan batzen ginen gazteok berriketan ibiltzeko baserriaren in-  
guruan. Egun batean, baserriko ukuiluan geundela, tiro hotsak entzun  
genituen barruan eta 30 segundu geroago Arrate anderea irten zen ba-  
serriko atletik korrikan, Mattinek Unai tirokatu zuen.

Orduan ni eta Ugaitz korrika sartu ginen ea zer gertatu zen ohar-  
tzeko, gure atzetik Arrate anderea guri belarrira zer gertatu zen konta-  
tzen zegoen bitartean.

Mattinek bere buruaz beste egin zuenean ohartzean, etxetik ihes  
egin genuen guztiok, Ugaitz, Arrate anderea eta beste gaztetxo  
gehiago. Oraindik gaur inork ez daki zer gertatu zen egun hartan eta  
pare bat kilometro korrika egin eta gero batu ginenean, denok gelditu  
ginen zur eta lur; tentsioa erabatekoa zen, eta, horrexegatik, hain zuzen  
ere, nahiago izan zuen isilik geratu.

Hortik aurrera, bakoitzak bere bizitza eraiki zuen eta nik nirea ere  
bai, orain meategi lantegi batean egiten dut lan. Baina, oraindik, nire  
bizitza ahaztu gabe, eta ez dakit nor naizen ni.




# Etorkizuneko tramankulua

**K**aixo! Ni Olatz naiz eta nire bizitzaren ikuspuntua aldatu zuen gertakari bat kontatuko dizuet. Udaberriko egun arrunt bat zen. Mendian bueltatxo bat ematen nengoen eta gizon bat ikusi nuen guztiz beltzez jantzita. Ez nion aurpegirik ikusi; beraz, asko pentsatu gabe, ezkutuan jarraitu nion. Baserri batera joan zen. Arbolatik arbolara bere atzetik ezkuturik nindoala, etorkizuneko tramankulu bat ikusi nuen, oso arraroa zen. Burdinezkoa zen, baina, erdi-erdian, pantaila bat zuen. Pantaila hortan 1974. urtea jarri zuen; izugarritzko argi disdiratsu bat piztu zen, eta itzali zenerako gizona jada ez zegoen. Nora joango ote zen gizajoa? Ondo pentsatuz gero, konturatu nintzen 1974. urtea nire aitona hil zen urtea izan zela, eta kasualitate handiz, gaurko egunean, ekainaren 9-an hil zen. Nire amona nerabezaroan geratu zen haurdun nire aitonarekin. Sabelean zuen umea nire aita da. Nire aita jaio baino hilebete batzuk arinago, norbaitek nire aitona hil zuen. Inoiz ez dugu jakin nor izan zen. Azkenean, nire amona beste gizon batekin ezkondu zen, eta umea gizon horrekin hazi zuen.

Beno, nire gertakarira bueltatuko gara. Tramankulu hortara hurbiltzera ausartu nintzen. Nik ere 1974. urtea jarri nuen eta argi disdiratsu





hori piztu zen. Ez nuen ezer arraroa igarri momentuz. Desilusio handiz, etxera bueltatu nintzen, baina etxean ahots desberdin batzuk entzun nituen. Atea jo nuen hiru aldiz eta mutil batek ireki zuen atea. Aurpegi ezaguna zuen, baina ez nekien nondik ezagutzen nuen. Ea nor zen galdetu nion. –Antton naiz –erantzun zidan. Momentu hartan, aurpegia argitu zitzaidan. 1974. urtean nengoen eta Antton nire aitona zen! Tramankulu hori iraganera eta etorkizunera bidaiatzeko zen! Ezin nuen sinetsi. Nire aitona bizirik mantentzeko aukera nuen! Anttonek galdetu zidan ea nor nintzen, esan nion herri hartan berria nintzela eta jendea nahi nuela ezagutu. Esan zidan gauean festa bat egingo zuela bere etxean eta ahal nintzela joan. Baietz esan nion, joango nintzela. Ibiltzera joan nintzen gaua heldu arte. Nork hilko ote zuen nire aitona gau hartan? Pentsamendu haietan murgildu nintzen. Azkenean, konklusio batera heldu nintzen: gau hartan jakingo nuela. Orduak igaro ziren eta gaua heldu zen. Aitonaren etxera joan nintzen, festara. Musika entzuten nuen eta kolore desberdinetako argiak ikusten nituen. Barrura sartu nintzen eta Anttonek bere lagunak aurkeztu zizkidan. Bat nire amonaren gizona zen. Nire «oraingo aitona». Bere izena Patxi da. Antton trastelekura joan zen edarien bila. Patxi, bitartean, komunera. Beltzez jantzita zihoan gizona berriro ikusi nuen. Aurpegia txano batek tapatuta zerman. Bere atzetik joan nintzen. Anttonen atzetik zebilen. Bera izan behar zuen Antton hil zuena, bai ala bai. Bere atzetik joan nintzen eta – «Badakit zer egingo duzun!» –oihukatu nion. Txanoa kendu nion eta... Nire aitona Patxi zen! Orainaldikoa, ez iraganekoa. Esan zidan

dena azaldu ahal zuela. Esan zidan gaztetaz gauza oso txar bat egin zuela eta aldatu nahi zuela. – «Zuk hil zenuen nire aitona!»– esan nion izugarritzko haserrez. Negarrez hasi zen. Malkoak bere aurpegi tximurdunetik zeuden irristaka. – «Hau aldatu behar da! Ni hil behar naiz hau ez gertatzeko» –esan zuen. Nik esan nion lagundu egingo niola. «Patxi eramango dut besteengana zuk zure burua hiltzen duzun bitartean» –esan nion. Alferrik izan zen guztia. Patxi Antton hil zuen. Tramankulura bueltatu ginen berriro saiatzeko. Berriro ere, ez genuen lortu. Mila aldiz saiatu ginen, era desberdinetara. Alferrik izan zen guztia.

Berriro ere negarrez hasi zen. Ozeano oso bat sortu ahal zuen bere malkoekin. – «Pertsona gaiztoa naiz; zure amonarekin egon naiz maiteminduta betidanik. Zure aitona haurdun utzi zuenean ezin nuen sinetsi eta burua galdu nuen. Zergatik egin nuen hori?» –esan zuen.– «Zerbait egin behar dugunean, egin baino arinago, ondo pentsatu behar dugu. Iragana ezinezkoa da aldatzea; baina, etorkizuna bai ahal da. Ezin zara egon beti iraganean egin dituzun gauzekin zure burua jaten. Etorkizunean pentsatu behar duzu. Nola ahal duzun pertsona bezala hobetu. Zure akzio onek ez dituzte zure txarrak ezabatzen, noski. Baina, hala ere, etorkizuna hobetzeko gauza bat da» –esan nion sentimenduz. Tentsioa erabatekoa zen, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, nahiago izan zuen isilik geratu. Baina badakit asko gustatu zitzaiola esan nion hori. Eta horrela aldatu zen gure bizitzaren ikuspuntua.



# Lagunak eta sekretuak

**B**izitzak bigarren aukera bat eman zidan, sufritutako guztia atzean utzi eta berriro zerotik hasi beharra izan nuen. Elgoibarretik Bergarara etxez aldatu nintzen, inguratzen ninduen guztia maleta batean sartu eta bizitza berri bat hasteko prest nengoen. Bizitza berri horretan, ez nuen inor ezagutzen, izan ere, familiaz aldatu nuen, nire haurtzaroan eta nerabezaroan egon ziren pertsona guztiak atzean utzi nituen. Nahiz eta nire etxe berri horretan aurkituko nituen kideek beste kide bat bezala onartuko nindutela jakin, ez nintzen guztiz familiakoa sentitzen.

Nire ikastola berrira joateko lehen eguna iritsi zen, oso urduri nengoen, ez bainuen inor ezagutzen. Zuzendariak nire ikasgelara eraman ninduen, denak taldeka zeuden jarrita, atze aldean zegoen neskato bat ezik. Bere ondoko mahaia hutsik zegoen, hortaz, irakasleak bertan eseritzeko esan zidan. Irakasleak ikasle guztiak aurkeztu zizkidan. Ikasle guztietatik bat baino ez nuen begiz jo, eta lasaitasun handia eman zidan bere ondoan eseriko nintzela jakiteak. Banekien bere izena Uxue zela eta bere lagun egiteko asmoarekin aurkezpen zehatzago bat egin nion.



Egun hartatik aurrera, banaezinak bihurtu ginen.

Hilabeteak pasa ahala, elkarri buruz guztia genekien, baina iruditzen zitzaidan Uxuek zerbait ezkututzen zidala: hasieran ez nuen ezer esan nahi, agian soilik nire usteak zirelako. Baina azken egunetan oso kezkatuta nengoen. Kolpe eta beltzune handiak zituen gorputz osoan zehar eta nola egiten zituen galdetzen nionean, beti aitzakiak jartzen zizkidan, oso traketsa zela arrazoituz.

Egun batean, liburutegira joateko gelditu ginen. Ohartu nintzen lepora arteko jertse lodi bat zuela soinean. Urtarrilean egongo bagina, ez ninduen harrituko, baina jada maiatzean geunden, horregatik, arraroa egin zitzaidan. Egiten zuen beroaren ondorioz, ilea zaldi-buztan batean lotu zuen, horrela ikusi nituen lepoan zeuzkan beltzune izugarri guztiak. Horrekin, nire susmoak egia zirela ohartu nintzen, baina ez nintzen gai ezer esateko. Gau osoa pentsatzen egon nintzen eta pentsatu nuen egokiena berari esatea zela, baina horretarako momentu aproposa aurkitu behar nuen. Hurrengo egunean parkera joateko geratuta geunden eta momentu aproposa zela iruditu zitzaidan.


Parkera jaitsi ginenean, betiko eserlekuan eseri ginen. Ez nekien nola galdetu, orduan, isilik gelditu nintzen, hitz egiten hasiz gero, ezin izango nintzelako galdetu gabe gelditu. Horixe bera gertatu zen, Uxue



hitz egiten hasi zenean, ezin izan nion gehiago eutsi, eta galdetu egin nion ea norbaitek jotzen zuen edo etxean arazoak zituen. Nire galdera entzundakoan, aurpegiaren adierazpena guztiz aldatu zitzaion. Tentsioa erabatekoa zen, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, nahiago izan nuen isilik geratu. Zitzu bizian ezer esan gabe bere etxerantz abiatu zen, eta hurrengo aste osoan ez zidan hitz bakar bat ere esan.

Uxue jada nire lagunik onena zen, hala ere, ez zuen nitaz ezer jakin nahi, eta horrek barrutik mintzen ninduen. Hori ikusita, ikastolako jolasordu batean beregana hurbiltzea erabaki nuen. Beregana joan nintzen eta barkamena eskatu nion, berak nire barkamena alde batera utzi, eta garrasika hasi zitzaidan esanez ez nintzela inor bere egoera epaitzeko eta ez nekiela ezer. Nik hori entzundakoan, masailean malko batekin erantzun nion, soilik lagundu egin nahi niola eta banekiela zer gertatzen zitzaion. Izan ere, bere egoera berean egon nintzen. Uxue atzetik etorri zitzaidan zerbait esaten, baina ez nion jaramonik egin.

Arratsalde horretan, etxean egon nintzen negarrez, aurretik bizi-tako guztia gogora etorri zitzaidalako. Ez nuen Uxurekin istilutik hitz egin, apur bat haserre nengoen berarekin. Bat-batean, norbaitek etxeko atea jo zuen, atea irekitakoan, ohartu nintzen Uxue zela eta ez zidan eman aukerarik atea ixteko, etxe barruraino sartu baitzen. Momentu horretan, ez nuen gogorik berarekin hitz egiteko, baina sartu bezain



pronto barkamena eskatu zidan, eta egia aitortu zidan: bere aitak jo egiten zuen. Hori entzundakoan, bioi begiak malkoz bete zitzaizkigun eta besarkada bat eman zidan.

Etxean inor ez zegoenez, etxeko egongelan eseri ginen eta nire Elgoibarreko bizitza kontatu nion nire aitak tratu txarrak ematen zizkidala, eta ondorioz, Bergarara etorri behar izan nintzela bizitzera beste familia batekin. Hori entzundakoan, Uxue guztiz gelditu zen, eta esan zidan ez zekiela ezer. Jarraian, bere egoera kontatu zidan: bere ama hil zenetik bere aitak jo egiten zuen; okerrena isilik geratzea zela esan nion. Ez zidan erantzun eta esan nion edozer gertatuz gero, berarekin egongo nintzela.

Isiltasun luze baten ondoren, laguntza eskatu zidan komisaldegira salatza joateko. Arratsaldean, bertara joan ginen eta dena kontatu zion ertzainari. Poliziak gauean bertan atxilotu zuen aita eta zortzi urteko kartzela zigorra ezarri zioten.

# Sorgin ahizpak

**A**ntzina bazegoen herri bat, sorginen beldur zena; kale guztietan kartelak jarrita zeuden, sorgin izateaz susmatzen zituzten emakumeen aurpegiekin. Kartel horietako emakume gehienak jandak hilda zeuden, Goikoetxe gizona eta bere alaben ama bezala. Goikoetxetarrak herritik urrun bizi ziren, erabat isolatuta: 6 alabak ez ziren eskolara joaten, eta aitak ez zuen kontakturik herriko inorekin. Ahizpek jainkosen itxura zuten ile luze eta zuri-zuriarekin, hain zuzen, sorgin itxura zutenez, jende askok beraiek ere ote ziren susmatzen zuen. Jendaurrean sorginak ez zirela esan arren, ukazina zen ahizpak sorginkerian trebeak zirela.

Laila, Izar, Miren eta Haizene etxe kanpoan zeuden egun eguzkitsu batean, loreak batzen. Haizenek burua altxatu eta basoan norbait ikusi zuen, beraien norabidean oinez.

– Neskak! Goazen barrura, norbait dator – esan zuen.

Barrura sartutakoan aita eta beraien beste bi ahizpak, Ilare eta Ane ikusi zituzten. Bat-batean, atea jo zuten eta aitak atea ireki zuen, soilik bere muturra sartu eta galdetu zuen urduri:

– E-egun on. Zerbait behar duzue?



Ahizpek ezin zuten ikusi ate atzean zegoena, baina susmo txarra hartu zioten.

– Bai, egia esan, zu eta zure alaba sorginok pikutara bidali nahi zaituztegu – erantzun zuen gizon batek eta ondoren, barre harroputzak entzun ziren.

Laila aitari galdetzera zihoan baina hobeto pentsatu zuen. Tentsioa erabatekoa zen, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, nahiago izan zuen isilik geratu.

– E, e? – galdetu zuen aitak, harrituta. Halere, ez zuen izan pentsatzeko denbora askorik, segituan atea behera bota eta gutxienez 10 pertsonako talde bat etxean sartu zenean.

Ahizpak korrika hasi ziren beraien geletara joateko, baina bazekiten zer egin behar zuten. Denek goizean jasotako lore sorta bat eskue-tan hartu eta berriz atera hurreratu ziren. Emakume eta gizon taldea inguratu eta denak lore sorta altxatzean, hitz hauek errepikatu zituzten:

– Mendien artean, eguzkiaren aurrean, loreen babesean eta gauaren hasieran, utz gaitzazue bakean!

Horrela, denak sutan hasi eta ahizpek korrika ihes egin zuten.

Zoritxarrez, ezin izan zuten aita salbatu, baina mendien artean jarraitzen dute gaur egun, sorginkeriak egiten. Gainera, batzuetan herrietara hurreratu eta sorgin gazteei laguntzen diete, sorginkerian sinesten ez duten horiengandik babesteko.



